


Hezur Muina Transplantatzeko Unitatea HMTU

Gaixoentzako eta laguntzaileentzako gida



AURKIBIDEA

- 4** Unitatean sartzeko arrazoia
- 5** Zer da Hezur Muina Transplantatzeko Unitatea?
- 7** Eremu esterila
- 8** Laguntza-neurriak
- 8** Bisita-ordutegia
- 9** Alta jasotzen denerako gomendioak
- 10** Glosarioa



SARRERA

Liburuxka honek Hezur Muinaren Transplanteari buruzko informazio baliagarria eskainiko dizu. Irakur ezazue arretaz, bai zeuk bai tratamenduan zehar lagunduko dizuten senitartekoek edo bestelako pertsonak.

Zerbait ulertzen ez baduzu edo zalantzaren bat baduzu, galdetu zure medikuari edo erizainari.


Erabiltzen ditugun terminoak hobeto uler ditzazun, etzanean agertzen diren hitz guztiak definituta eskaini ditugu, liburuxka honen amaierako glosarioan.



UNITATEAN SARTZEKO ARRAZOIA

Zure medikuak kimioterapia dosi handietan hartzea gomendatu dizu, zure gaixotasunari aurre egiteko tratamendu egokiena dela uste baitu. Batzuetan, zelula *neoplasikoak* suntsitzeko, beharrezkoa da botika-dosi handiak aplikatzea. Tamalez, gorputzean dauden beste zelula batzuk ere kaltetu ditzakete botika ahaltsu hauek, hala nola, hezur-muinean sortzen diren zelula amak (hezurraren barnean dauden esponja moduko ehunak dira, eta hor sortzen dira odoleko zelulak). Horren ondorioz, odol-osagaien kopurua (globulu zuri, globulu gorri eta plaketena) murriztu egingo da, eta, hortaz, osagai horiek duten funtzioa ez da behar bezala beteko.

Globulu zurien edo defentsen murrizketa (*granulozitopenia*) *hezur-muinaren* infiltrazio batengatik eta/edo kimioterapia-tratamendua erabiltzeagatik sortzen da, eta infekzioa izatea bideratzen duten faktoreetako bat da. Berehalako ondorioa da organismoak ez duela gaitasunik infekzioei behar bezala aurre egiteko, eta horrek zaildu egiten du gaixoa sendatzea.



Infekzioen aurkako terapia onena profilaxia da. Hau da, prebentzio-neurriak hartzea, infekzioa gerta ez dadin.

Neurri hauek agente infekziosoen bi talde dituzte kontuan:

Kanpoko agenteak

Germen horiek etor daitezke

- Airetik
- Uretatik
- Sukaldean prestatu gabeko janarietatik
- Inguruko pertsona eta objektuetatik


Jatorri hau duten gaixotasunei aurre egiteko, gaixoa *ingurune* esteril batean jartzen da.

Barneko agenteak

Baldintza normalean pertsonarengan bizi diren agente infekziosoak dira. Une jakin batean *patogeno* bihur daitezke agente horiek. Agente horiek leku hauetan egon ohi dira:

- Larruazalean, eta zulo nahiz tolestura naturaletan
- Urdail eta hesteetan

Germen horien profilaxia deskontaminazio-neurrien bidez egingo da; adibidez, larruazala egunero xaboi *antiseptiko* batez garbitzea, eta, gero, zulo eta tolesturetan pomada *antiseptiko* bat ematea, baita *antibiotikoak* ahotik hartzea ere.



ZER DA HEZUR-MUINA TRANSPLANTATZEKO UNITATEA?

Iragazitako airearen korrante laminarra duen gela bat da. Iragazte horrek hiru hesi ditu:

- 1 Eraginkortasun handiko iragazkiak, HEPA iragazkiak.**
Ingurunean dauden bakterioak, onddoak eta birusak arazten ditu.
- 2 Aire esterileko hesia.**
Oheburuan haizagailu batzuk kokatzen dira, eta, horien bitartez, airea horizontalki mugiarazten da. Aire-masa abiadura uniformearen mugitzen da linea paraleloetan; horrela, turbulentziak saihesten dira. Aire-korrante horren eraginez, airean dauden partikulak ez dira erortzen eta, ondorioz, ez dira jartzen gaixoaren gainean edo gelako edozein objekturen gainean (hesi efektua egiten du).
Aire-berritzea eta aire-zirkuitua HEPA iragazkien bidez garbitzen dira.
- 3 Kontaminazioaren aurkako hesi fisikoa.**
Eremu esterila gela-sarreratik banatzen duen errezel garden bat da. Eskularruak dauzka, gaixoarengana heldu ahal izateko.



EREMU ESTERILA

Altzariak:

Ohea (artikulatua eta elektrikoa).
Mahaia, objektu pertsonaletarako.
Telefonia eta mahaitxo.
Telebista.
Besaulkia.

Kontrol-sistemak.

Deitzeko txirrina eta interfonoa.
Telebistaren eta kanpo-pertsianaren urruneko kontrola.
Argi eta errezelaren kontrola.

Objektu pertsonalak:

Txapinak (felpazkoak edo antzekoak ez).
Liburuak, aldizkariak (egunkaririk ez).
Irratia, kasetea, edo CD irakurgailua, tamaina txikikoa.
Puzzleak.
Gurutze-puntua.
Azazkalak moztekoa (guraizeak ez).
Bizar-makina elektrikoa.
Bestelako objektuentzat, galdetu sartzerakoan.

Hautsa metatu ez dadin, ez dira gauza asko eduki behar gelan.

Oharra:

Ur-hustubideak ere kontaminazio-iturri garrantzitsuak direnez, gelan ez dago ez komunik ez konketarik. Haien orde, palangana moduko garbiontzia eskainiko dira, ur esteril, xaboi, antiseptiko eta bestelako osagarriekin batera.

LAGUNTZA-NEURRIAK



Ospitaleko Erljio Zerbitzua



Zerbitzu Psikologikoa


BISITA-ORDUTEGIA

Senitarteko edo laguntzaile bakar bati utziko saio sartzen.

Bisitariak kontuan izan beharko du asepsia oso handiko leku batera sartuko dela, eta, horregatik, hainbat neurri hartu beharko dituela (bitxirik ez eramatea, ilea jasota izatea, etab.). Gainera, jantzi egokia emango zaio Hezur Muina Transplantatzeko Unitatean.

Goizean: 13:30 - 14:30

Arratsaldean: 19:00 - 21:00



ALTA JASOTZEN DENERAKO GOMENDIOAK



Higiene-ohiturak

Ez dago inolako arazorik egunero bainatzeko edo dutxatzeko.

Hortzak garbitzean, ez erabili eskuila latzik, odola ez ateratzeko. Gainera, infekzioak saihesteko, ahoa kolutorioekin garbitzea komeni da.



Elikadura

Medikuak bestelakorik adierazi ezean, betiko ohituren arabera jan daiteke.



Ariketa:

Bititza normala egin. Norberak neurtuko du zer-nolako gaitasun fisikoa duen.



Erreserborioa edukiz gero, txartel bat emango zaizu hura kontrolatzeko.



Bestelako gomendioak

Sintoma hauek izanez gero: gorputz-tenperatura 38 °C baino handiagoa (sukarra), odola sudurretik, odola gernuan, eginkari ilunak, edo ardura sortzen dizun beste edozein gauza, deitu Hematologiako Kontsulten telefonora, edo joan Larrialdi Orokorretara.



GLOSARIOA:

- **Antibiotikoa:** Infekzioei aurre egiteko erabiltzen den botika.
- **Antiseptikoa:** Infekzioak sortzen dituzten mikrobioak suntsituz, infekzioen prebentziorako edo infekzioen aurka borrokatzeko erabiltzen den botika.
- **Globulu zuriak:** Globulu zuriak, edo leukozitoak, odoleko zelula batzuk dira. Organismoa substantzia arrotzetatik edo agente infekziosoetatik babestea da haien funtzio nagusia.
- **Globulu gorriak:** Hematie ere deitzen zaie. Zelula hauek oxigenoa garraiatzen dute biriketarik gorputzeko ehun guztietara.
- **Granulozitopenia:** Leukozitoak gutxitzea.
- **Hezur-muinaren inbasioa:** Tumoreak hezur-muinaren espazioa inbaditzea; ondorioz, granulozitopenia eragiten da.
- **Neoplasia:** Tumorearen sinonimoa. Gehiegizko zelula-hazkundera duen edozein prozesu.
- **Patogenoa:** Gaixotasuna sortzeko ahalmena duen mikroorganismoari ematen zaion adjektiboa.
- **Plaketak:** Tronbozito ere deitzen zaie. Estimulu batzuen ondorioz, elkarri lotzeko gaitasuna duten odol-zelulak dira; horrela, koaguluak sortzen dituzte, koagulazioa aktibatzen duten substantzia-granuluak dauzkatenaz.
- **Kimioterapia:** Gaixotasun neoplasikoak tratatzeko erabiltzen diren botikak. Minbizi-zelulak ugal daitezen ekiditea da beren funtzio nagusia.
- **Erreserborioa:** Azalpeko injekzio-kapsulen bitartez zainetik barnerako irispide zentrala duen kateterra. Operazio-gelan ezartzen da, anestesia lokaleko operazio txiki baten bitartez (20 minutu ingurukoa). Gehienetan, deltoide eta bularreko muskuluen artean ezarri ohi da, zain subklabioetan zehar. Botikak sartzeko edo laginak minik gabe ateratzeko erabiltzen da.